

GMSM Medioambiente SA 1998an jaio zen erakunde publiko zein pribatuekin ingurugiroarekin lotutako zerbitzuak eman, kudeatu, ustiatu eta komertzializatorako lankidetzan aritzeko.

Bere lerro estrategikoen artean, GMSMko plantilla osatzen duten langileen euskararen ezagutza handitzea dago, euskararen erabilera bultzatuz kudeatutako zerbitzuetan. GMSMk euskara **elementu bereizle** gisa ulertzen du, eskaintzen duen zerbitzuari **balio erantsia** ematen diona.

**Euskara Plana 2013.urtean** martxan jarri zen aurrerapauso garrantzitsua emateko asmoz. Une horretararte euskararen garapena, euskara erabiltzea ala ez, batez ere, langileen borondatean oinarritzen zen. 2013. urtean erabaki zen **euskararen garapenari eta erabilerari erantzutea modu integral eta sistematikoan**.

2013. urtean, helburuak, filosofia eta lerro estrategikoak behin ezagututa eta aztertuta, GMSMk, euskararen garapenean aurrera egiteko, erabaki zuen **Euskara Plana martxan jartzea** eta plana aurrera eramateko **giza egiturak** finkatzea. Horretarako, plantillan **euskara-teknikari** bat sartu zen eta **Euskara Batzordea** osatu zen.

GMSMk konpromisoa hartu zuen strategiak diseinatzeko erakundearen egiturazko elementuen artean euskara gradualki sartzen joateko. Horretarako, Erreferentzia Marko Estandarrean (**EME**) jasotako esparruetan erabiliko diren **hizkuntza-irizpideak** ezarri zituen.

Euskara Planaren garapenaren emaitza gisa, GMSMk 2014. urtean **Bikain Zilarra** lortu zuen (600-649 puntu).



GMSMren euskara-plana **4 ardatzetan** egituratzen da:

- Kudeaketa-plana
- Prestakuntza-plana
- Hautapen-plana
- Komunikazio- eta sentsibilizazio-ekintzak

➤ **Kudeaketa-plana**

Urtez urteko kudeaketa-planak **ekintzak, arduradunak, partaideak, ebaluazio-adierazleak, kostu ekonomikoa eta epeak** jasotzen ditu zehazten diren helburuak lortzeko. Plan hau Eusko Jaurlaritzako **LanHitz Programaren** barruan kokatzen da,

euskararen erabilera eta presentzia lan-munduan areagotzeko ekimenaren barruan. Planaren prozesu metodologikoa **PDCA zikloa** (Plan-Do-Check-Act) aplikatuz burutuko da.

➤ **Prestakuntza-plana**

Prestakuntza-plana bideratzen da langile guztiek beharrezko ezaguerak lortzeko, jendeari zerbitzua eman ahal izateko ahoz eta idatziz.

Asmo honekin, GSMk lanpostu bakoitzak izan beharreko **hizkuntza-eskakizunak** ezarri ditu eta dauden prestakuntza-beharren arabera, bere langileen hizkuntza-beharretara ondoen egokitzen den prestakuntza-plana planteatu du. GSMk proposatzen duen **hizkuntza-prestakuntzako plana** euskararen erabileran, jendeari zerbitzua ematearekin eta eguneroko lanarekin lotutako hizkuntza-gaitasunak lortzera bideratuta dago.

➤ **Hautapen-plana**

Bajak, oporrak eta abar betetzeko **kontratazio berrietan**, eskatuko da kontratatutako langileek **euskarazko oinarritzko maila A2** izatea (Europako Erreferentzia Markoa).

Proposamen honek bermatzen du **lanpostu berri guztiak**, euskaraz nahiz gaztelaniaz komunikatzeko gai diren pertsonak bete ditzatela.

➤ **Komunikazio- eta sentsibilizazio-ekintzak**

GSMko langileen partaidetza sustatzeko Euskara Planean, komunikazio aldetik zenbait ekintza daude martxan.

Batetik, Euskara Batzordeak hartzen dituen erabakien berri emango zaie langileei; eta, bestetik, langileen ekarpenak, kexak, eskaerak jasoko dira.

Horretaz gain, GSMk bestelako sentsibilizazio-ekintzak proposatzen ditu: euskarako irudia izatea, **Euskararen Nazioarteko Eguna** ospatzea... eta hori guztia langileen partaidetza sustatzeko.